

# Ongi etorri

BARCOS, Javier  
San Fermin Ikastolako lehendakaria

## 1. Ongi etorria eta eskerrak

Jaun-andreok, ongi etorri San Fermin Ikastolara.

Eskerrik asko abeslari eta antolatzaile guztiei. Gaurko ospakizunaren atzean jende askoren lanordu pila dago eta beraiei esker egin ahal izan da prestatutako ekitaldia.

## 2. San Fermin Ikastola

San Fermin Ikastola ibilbide luzeko ikastetxea da, 1970ean sortua, eta urteetan zehar handitzen eta haren proiektua sendotzen joan da.

Gure ikastola partaidetza sozialeko ikastetxea da, 3 eta 18 urte bitarteko ikasleen heziketa bere gain hartzen duena. Irakaskuntzaren maila bakoitzaren berezko izaera zainduz, San Fermin Ikastolak ziklo guztiak kontuan hartzen ditu: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa.

Gaur egun, 950 familiek, 1.465 ikaslek, 98 irakaslek eta zerbitzuetako 38 profesionalak osatzen dute ikastolako komunitatea.

### 3. *Nafarroa Oinez*. Leloa eta logoa

San Fermin Ikastolak *Nafarroa Oinez 2012* antolatzeko ardura hartu zuen joan zen urriaren 16an Tafallako Garcés de los Fayos Ikastolaren eskutik lekukoa hartu eta gero.

### 4. *Nafarroa Oinez*. Helburuak

Gure *Nafarroa Oinez*en helburua San Fermin Ikastolaren eraikinak handitzea eta berritzea da, batez ere Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan. Zorionez, ikasle kopurua urtez urte goraka doa.

Horrez gain, *Nafarroa Oinez*en eta Nafarroako ikastola guztien helburu orokorrak dira, batetik, kalitateko hezkuntza euskaraz ematea eta, bestetik, gure lurraldean euskara garatzea.

### 5. *Nafarroa Oinez*. Ekintzak

*Nafarroa Oinez 2012*ren antolaketan, San Fermin Ikastolaren helburu garrantzitsuetako bat festari kultura ekarpena egitea izan da. Horretarako hainbat jarduera antolatu dira: *Oinez Jazz* musika zikloa, *Hitz&Hitz* hitzaldiak, *Oinez Artea* erakusketa eta beste batzuk, ikastolaren eguneroko zereginaren haraindian, euskararen sustapenerako.

Gaurkoa, guretzako, oso berezia da. Azken jarduera izateaz gain, San Fermin Ikastolarentzako ohore handia da bere etxean Euskaltzaindia eta bere ordezkariak hartzea.

## 6 Ekitaldia

Eta, besterik gabe, saioari hasiera emango diogu:

Lehenik, San Fermin Ikastolako Abesbatzak eta Zangozako *Nora* Abesbatzak hiru kanta eskainiko dizkigute.

Gero, bi hitzaldi entzungo ditugu: lehena Pilar Vicente ikastolako zuzendariak emana, eta bigarrena, Paula Kasares euskaltzain urgazleak prestatutakoa.

Musikarekin jarraitzeko, kanta ederren sortatxoa.

Eta, azkenik, Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzak.

Eskerrik asko eta gozatu.